

FESTA HERRIKOIEN ALDE

Jai eredu parte-hartzaileak jasaten dituen erasoen aurrean nola erantzun erabakiko dute hiri, herri eta auzoetako eragileek

 **GIZARTEA /**
xole.aramendi@gaur8.info

Jai Herrikoiak Bultzatuz ekimenak kongresua egingo du Bilbon hilaren 22an. Hiri, herri eta auzoetako eragileak elkar hartuta datoz. Helburua ez da indarrak batzea bakarrik, baita lan formak eta tresnak elkartrukatzea ere. Sarea osatzen eta eraso-erantzun erabakitzen hasiko dira.

Batetik, festen antolakuntzan jartzen diren indar, ilusio eta bitartekoak. Bestetik, mundu politiko-
tik inposatzen diren trabak, diru laguntza murrizketak eta oztopoak. Herri, hiri eta auzoetako eragileek aspaldi ikusi zuten horien arteko desoreka.

Bilbon iazko Aste Nagusian gertatutakoa izan da txinparta. Diru murrizketak, enpresa pribatu-
en kontratazioa... bideak ugarriak dira, baina helburua, bera, ekimeneko kideen ustez: antolakuntza eredu parte-hartzailea suntsitzea. Arrakastatsua den eredu, gainera. «Nork esan dezake jai eredu honek –frankismo garaia-
ren amaieran sortutakoa– bizia galdu duela? Kontrakoa esango genuke: urteen poderioz hobetzen joan da eta izugarritzko arrakasta dauka, ez bakarrik plano kultural-
ean, baita plano ekonomikoan ere. Gainera, herritarrei galdetu diegun bakoitzean, eredu honen biziraupenaren alde agertu dira», argitu dute.



Ehunka pertsona bildu ohi dira Bilboko Aste Nagusiaren hasiera ekitaldian. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

BILBO

GARIKOITZ GOIKOETXEA, KONPARTSEN FEDERAZIOA

«Politikan ematen diren eraso mediatikoen ping-pongeko pilota bezala erabiltzen gaituzte»

Bilboko festak osasuntsu ikusten ditu Garikoitz Goikoetxeak. «Arrakastatsua dira, parte hartze izugarria dute, konpartsen 'osasuna' ona da eta gainera handitzen ari den familia gara –jada 29 konpartsa gaude–. Gainera, Bilboko jendartearen babesa dugu».

Baina, tamalez, eragozpenak ugarituz doaz. «Ordenantza-
ren azken aldaketekin eta azken udako mugimendu politikoekin Aste Nagusia zulatzen saiatzen ari dira Bilboko Udal-
etik. Alde batetik, Bilboko berezitasuna den batzorde mistoa boikotatzen saiatzen dira, eta bestetik aitzakia politikoak erabiltzen dituzte konpartsak erasotzeko. Herri honen bizitza politikoan ematen diren

eraso mediatikoen ping-pongeko pilota bezala erabiltzen gaituzte gu eta jaiak», dio.
«Betidanik jarri zaizkio oztopoak herriaren parte hartze zuzenari, baina presioa areagotuz joan da. PP eta PSOEn planei men eginez, udal gobernuak (PNV eta IU) eredu parte-hartzailea desagerrarazi eta bere esanetara egongo den herri mugimendua hezi nahi du», gaineratu du.

«Diru murrizketek jaien kalitatean eragin askoz zuzenagoa izango lukete konpartsak hor egongo ez bagina –nabarmendu du–. Murrizketak zelan gaituzte pentsatzen aritu beharko ez bagenu, denbora hori festak hobetzen inbertituko genuke». Auzoei dagokienez, diru laguntzak «guztiz iraingarriak» direla dio.

Erakundeek erakutsi nahi duten irudia eta benetako errealitatea ez datoz bat. «Festen arrakasta beraie-
ren irudia saltzeko erabili nahi dutelako, horregatik agertzen dute publikoan jaien ereduaren aldeko jarrera. Teorian, jai eredu mistoaren aldeko jarrera agertzen dute, baina hori ez da islatzen errealitatean. Egunerokotasunean jai batzordea ez dute erabakiak hartzeko gune bezala erabiltzen, haien botere guneetan hartzen dituzte erabakiak eta gero hortxe jakinarazten dizkigute», salatu du.

Egoera ikusita, benetan gertatzen dena azalerazi nahi dute: «Argazki eta fokuen atzean, jaien aldeko irribarre faltsuen atzean, udal politika benetan zein den zehazki azaldu nahi dugu. Izan ere, txeki zuriaren politikarekin amaitzeko erarik eraginkorra jendartearen aktibatzea litzateke. Eta ondo informatutako eta aktibatutako jendartearen izanik, bestelako ekimenak bideratu ahal izango ditugu jaien defentsan. Horrela aritu diren bakoitzean eta guk erantzun egokiak antolatu ditugun guztietan, jendarteak herri mugimenduaren alde egin du beti gaur artean. Adibidez, inauterietan egindako galdetan argi geratu zen nortzuk zeukaten jendartearen sostengua. Klabe nagusiak informazioa eta aktibazioa dira».